



GAILUR
MENDI TALDEA
lezama • 1991-2017



MATERIALA ALOKAIRU ERREGIMENEAN ERABILTZEKO ARAUDIA

- 1.- Mendi- eta liburutegi-materiala alokairu-erregimenean eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da Lezama Gailur Mendi Taldeko bazkide izatea.
- 2.- Zerbitzu horretan eskuragarri dauden produktuen xehetasunak dagozkion inbentarioan jasota daude (Mendi-materialaren inbentarioa, Gida eta eskuliburuen inbentarioa, eta Mapen inbentarioa).
- 3.- Taldeak aldiari behin zabalduko ditu inbentario horiek bazkideen artean. Halaber, webgunean ere eskuragarri egongo dira, kontsultatu ahal izateko.
- 4.- Produkturen bat alokatu nahi dutenek Taldeari egingo diote eskaera, mezu elektronikoa bat idatziz gailurmt@outlook.com helbidera. Taldeak bide horretatik konfirmatuko du eskatutako produktua eskuragarri ote dagoen, eta hitzordua zehaztuko du bazkidearekin, eskatutako materiala emateko.
- 5.- Eskatutako materiala eskuragarri dagoela ziurtatzeko, gomendioa da eskaera 15 egun lehenago egitea, erabiltzeko aurreikusitako data gogoan izanda.
- 6.- Alokaturakoa itzultzeko, 4. puntuan adierazitako prozedura berari jarraituko zaio.
- 7.- Dagokion inbentarioan zehaztuta dagoen produktu bakoitza alokatzeak duen asteko prezioa.

8.- Taldeak materiala erabiltzeko lehenetasuna izango du, urteko egutegian programatutako taldeko jarduerak behar bezala gauzatzen direla ziurtatze aldera. Hortaz, Taldeak produktuok une horretan behar ez baditu, materiala jarduera partikularretarako alokatu ahal izango da.

9.- Alokaturako produktua Taldeak eman zuen baldintzetan itzultzen ez bada, Zuzendaritza Batzordeak gaitasuna izango du alokairua egin duenari aplikatuko zaion zigorra zehazteko.

10.- Produktua hondatu duenak ordaindu behar duen zenbatekoa zehazteko, produktuan eragindako kalteak hartuko dira kontuan, taldean erabiltzeko dagozkion prestazioei erreparatuta.

11.- Horrela jasotzen diren zenbatekoak Taldeak material berria erosteko aurreikusten duen urteko esleipen ekonomikora bideratuko dira.

12.- Alokaturako produktua itzultzen ez bada, lapurtu dutelako edo galdu egin delako, produktuaren kostuaren %100 ordaindu beharko da.

13.- Jasotzen den zenbatekoa prestazio eta ezaugarri berak dituen produktu bat erosteko erabiliko da, bazkide guztiek produktua eskura dutela ziurtatzeko.

14.- "Produktu" diogun bakoitzean, hala mendi-materialaz nola liburutegiko edukiaz ari gara.

LEZAMA **GAILUR** MENDI TALDEA

Garaioltza, 133-E 48196 Lezama (Bizkaia)

gailurmt@outlook.com

www.gailur.org

